

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA**

1. Animalien ongizate	3
2. Arraza garbien abeltzaintzako elkarteak.....	4
3. ISV 2024 Sustapena - Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko informazio- eta sustapen-ekintzak eta -programak egiteko laguntzak	6
4. Lehiatu Sustapena 2024 - Nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak EAetik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak.....	7
5. Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetarako laguntzak	8
6. Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak	10
7. Nekazaritzako azpisektoreen dibertsifikaziorako laguntza	10
8. Ekoizpen ekologikorako laguntza	12
9. Ekoizleen erakundeak edo taldeak sustatzeko lankidetza	13
10. Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak (EREIN programa).....	15
11. LEADER programa	16
12. EAEko landa- eta itsasertz-ingurunea dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak egiteko laguntzak.....	18
13. Fruta- eta barazki-ekoizleen erakundeentzako laguntzak 2024	19
14. Arrantza eta akuikultura sustengarria sustatzeko programa	20
15. Arrantza eta akuikultura ekoizleen elkarreentzako ekoizpen eta merkaturatze planen programa.....	23
16. Arrantza-eremuetako garapen jasangarriaren sustapen programa.....	24
17. Itsasoratu prestakuntza programa	26
18. Arrantza eta nautikan prestakuntza bekak	27
19. BERRIKER - Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko 2024ko laguntzak.....	28
20. Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzak 2024	29
21. ONEKIN 2024 programa - Elikaduraren eta zuraren balio-kateetan digitalizazio-, berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak definitzeko eta ideiak heltzeko prozesuak babesteko laguntzak	31
22. Bioekonomia 2024 - Bioekonomiako berrikuntza-proiektuetarako laguntzak.....	33
23. 2024ko lankidetza - Lankidetzako berrikuntza-proiektuetarako laguntzak	34
24. Ikertalent 2024 - Ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko 2024ko deialdia egiteko laguntzak	36



25. GASTROBIKAIN 2024 programa – Kalitate gastronomikoa sustatzeko programaren minimis araubideari atxikitako laguntzak.....	38
26. HANDITU INNOVA 2024 programa – Nekazaritza-ekoizpen primarioko berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzak.	39
27. KOOPERATU 2024 programa – EAEn nekazaritzako elikagaien kooperatibismoa sustatzeko laguntzak.....	40
28. LEHIATU INBERTSIOA 2024 programa – Nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta garatzeko laguntzak	41



1.- Diru-laguntza programaren izenburua

Animalien ongizate

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urriaren 1ekoa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, animalien ongizateari buruzko ziurtagiria lortzeko 2024. urterako laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404914e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategiei laguntzak emateko deialdia egitea, animalien ongizatearen ziurtagiria lor dezaten.

2023ra arte, laguntzak WELFAIR ziurtagiria lortzera bideratzen ziren, baina 2024ko deialdian animalien ongizateari buruzko beste ziurtagiri batzuetara zabaldu zen aukera, betiere baldintza jakin batzuk betetzen bazituzten.

Laguntza EAEn egoitza duten erakunde pribatuei zuzentzen zaie, besteak beste, kooperatibei, enpresei, elkarteei edo nekazaritzako beste elkarte batzuei, baldin eta nekazaritza-ustategiak edo banakako ustategiak biltzen badituzte eta honako helburu hauek badituzte: animalia-jatorriko elikagaiak ekoiztea eta/edo merkaturatzea, txerrien azpisektoreetakoak, erruteko hegazti-hazkuntza, landetako oilaskoa, ardi-esnea, ahuntz-esnea, esnetarako behiak, haragitarako behiak eta untxi-azienda.

Laguntzaren bidez, animalien ongizatea kontrolatzeko barne-prozedura prestatzeak eta ezartzeak eragindako gastuak finantzatu nahi dira, bai eta animalien ongizatearen ziurtagiriaren berezko gastuak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

5 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 5 onartu dira diruz laguntzeko modukotzat.

Guztira 101.656,26 € eman dira, 200.000,00 €-ko hasierako partida batetik.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	7	5

1.- Diru-laguntza programaren izenburua

Arraza garbien abeltzaintzako elkarteak

2.- Araua

240/2017 DEKRETUA, urriaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkartei dirulaguntzak ematea arautzen duena.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2024ko urriaren 8ko AGINDUAREN bidez, 2024ko ekitaldirako deialdia egin da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2017/11/1705265a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404705e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko arraza garbien abeltzaintza-elkarteentzako laguntzetarako deialdia egitea.

Laguntzaren bidez, erantzun espezifikoa eta egokiagoa eman nahi zaie arraza garbiekin lan egiten duten abeltzaintza-arloko pertsonen elkarteek dituzten finantzaketa-premiei, EAEko araudiaren legezko baldintzak bete ahal izan ditzaten.

Abeltzaintza-elkarte horiek ustategiak modernizatzeko ahaleginak koordinatu eta bultzatzen dituzte, liburu genealogikoak kudeatuz, hautaketa-programak gauzatuz eta errendimenduak kontrolatuz. Galzorian dauden arrazen kasuan, baliabide genetikoek kontserbazioa ziurtatu nahi da. Bestetik, lortutako emaitzak zabaltzen dituzte eta animaliak eta haien produktuak merkaturatzen laguntzen dute, ekoizpenean eraginkortasun handiagoa eta abeltzaintzako ustategien errentagarritasun handiagoa lortuz, programa berritzaileak eta teknologia berriak pixkanaka aplikatuz. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko landa-eremuak eta mendi-nekazaritzako eremuak garatzen eta bultzatzen laguntzen dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

11 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 11 diruz laguntzeko modukoak dira.

Guztira, 536.923,7 € eman dira, 600.000,00 €-ko hasierako partida batetik.



6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Arraza garbien abeltzaintza-elkarteak	11	11



1.- Dirulaguntza programaren izenburua

ISV 2024 Sustapena - Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuei buruzko informazio- eta sustapen-ekintzak eta -programak egiteko laguntzak

2.- Arau erregulatzailea

AGINDUA, 2023ko uztailaren 26koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita mahastizaintza eta ardogintzako esku-hartze sektorialaren programa hirugarren herrialdeetan sustatu eta komunikatzeko laguntzen 2024. urteko deialdia (ISV sustapena).

3.- Arau Erregulatzailearen Argitalpena, Deialdia y Dirulaguntza emateko ebazpena (EHAA hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean ardogintzako produktuei buruz hirugarren herrialdeetan egiten diren informazio- eta sustapen-ekintzetarako eta -programetarako laguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko deialdian 26 espediente onartu dira, eta guztira 8.420.542,11 euroko laguntza eman da. Europako funtsekin finantzatzen diren laguntzak dira, eta EAEko proiektuak autonomia-erkidego guztietako proiektu guztiekin lehiatzen dira funtsak eskuratzeko.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	30	26



1.- Dirulaguntza programaren izenburua

Lehiatu Sustapena 2024 - Nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak EAetik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak

2.- Arau erregulatzailea

AGINDUA, 2024ko urriaren 23koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren bidez araututako dirulaguntzak emateko 2024ko deialdia egiteko dena. Dekretu horren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak arautzen dira (Lehiatu Sustapena Programa).

179/2014 Dekretua, irailaren 23koa, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzei buruzkoa "Lehiatu Sustapena Programa"

3.- Arau Erregulatzailearen Argitalpena, Deialdia y Dirulaguntza emateko ebazpena (EHAA hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan egoitza soziala duten nekazaritza- eta elikagaigintza-industriak merkaturatutako nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak sustatzeko laguntza.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko deialdian 48 espediente onartu dira, eta guztira 468.254,37 €-ko laguntza eman da. Funts propioekin finantzatzen diren laguntzak dira, eta EAEko proiektuak elkarren artean lehiatzen dira.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurrebisioa</u>	<u>Emaitza</u>
Hartutako enpresen kopurua	60	48



1.- Dirulaguntza programaren izenburua

Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetarako laguntzak

2.- Arau erregulatzaileria

AGINDUA, 2024ko martxoaren 6koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetarako 2024ko ekitaldirako laguntzen deialdiko oinarriak onartzeko dena.

3.- Arau Erregulatzaileraren Argitalpena, Deialdia y Dirulaguntza emateko ebazpena (EHAA hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Helburu orokorra: Nekazaritzako ekoizpenaren eta produktuen kalitatea hobetzea.

Neurri horrekin, funtsean, produktuak elikatze-katean gehiago integratzen lagunduko da, gure sektore ekoizleak katearen barruan balio erantsia sortzeko duen zeregina indartuz, kalitate ziurtatua eta aitortua duten euskal produktuak Erkidegoko merkatuan gehiago eta hobeto kokatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleek eta produktuek Euskadiko kalitate bereiziko eta ziurtatuko estrategian parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatuz, estrategia hori baita gure nekazaritza-politikaren eta gastronomia ospetsuaren oinarria.

Horretarako, aipatutako aginduan hiru laguntza-ildo ezartzen dira:

- a) PEPAC 2023-2027ko 7131 esku-hartzea: Nekazariak kalitate-erregimenetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza.
- b) PEPAC 2023-2027ko 7132 kontu-hartzailera: ekoizle-taldeek Erkidegoko merkaturako egindako informazio- eta sustapen-jardueretarako laguntza, kalitate-araubide batek estalitako produktuei dagokienez.
- c) 2015-2022 Landa Garapeneko Programaren 3.1 neurria (Nekazariak kalitate-erregimenetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza). 2020., 2021. eta 2022. urteetan diruz lagundu daitezkeen kalitate-araubideetan izena eman zuten eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren ebazpenaren bidez laguntza jasotzeko eskubidea aitortu zitzaizen pertsonen eskaerei baino ez zaie erantzungo.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024an, 71 izan dira kalitate-erregimen batean lehen aldiz parte hartzeko 7131 esku-hartzearen onuradunak, eta 2015-2022 LGPren 3.1 neurriaren laguntza jaso dutenak, berriz, 63. Guztira, 134 izan dira onuradunak (118 izan ziren 2023an). Onuradun horietatik 59 titulartasun partekatuko emakumeak edo



ustiategiak dira, edo Emakume Nekazariaren Estatutuaren parekotasun-baldintza betetzen duten pertsonen taldeetakoak; beraz, gainerakoek baino % 15 gehiago kobratu dute. Aurrekontuaren % 56.65 gauzatu da.

Kalitateko produktuen informazio- eta sustapen-jarduerak egiten dituzten ekoizleen elkarteei zuzendutako 7132 laguntzetan 7 izan dira onuradunak (2023an erantzundako eskaerak). Azpineurri horretan aurrekontuaren % 77,24 gauzatu zen.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Parte hartu duten nekazarien kopurua	200	134
Ekoizleen elkarteak (informazio- eta sustapen-kanpainak)	10	7

1.- Diru-laguntza programaren izenburua

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak

2.- Araua

Agindua, 2024ko ekainaren 4koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2024ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/06/2402930a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402930e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin egiten duten elkarriketa soziala bideratzeko lanak laguntzen dira. Elkarriketarako sortu diren foroetan gauzatzen dira lan horiek, euskal nekazaritza-sektoreari eragiten dioten gaiak lantzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

1997-2000 Euskal Landa Garapenerako Jarduera Plana onartu ondoren, eragile ekonomiko eta sozialekin hitz egiteko hainbat foro sortu dira, eta, horretarako, sindikatu-izaerako nekazaritza-erakunde profesionalak laguntzeko irizpideak aldatu behar dira. Erakunde horiei, oro har, nekazaritza-sektoreari eta, bereziki, afiliatuei elkarriketa soziala eta orientazioa eta aholkularitza emateko jarduerak lagundu nahi zaizkie. 2024ko ekitaldian, eskaera aurkeztu dute eta dauden 5 erakunde profesionalak buruzko espedienteak izapidetu dira; guztira, 241.000,00 €-ko laguntza jaso dute.

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Erakundeak	5	5

1.-Diru-laguntza programaren izenburua

Nekazaritzako azpisektoreen dibertsifikaziorako laguntza

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko irailaren 3koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez 2024rako deialdia egiten baita nekazaritza-azpisektorea dibertsifikatzeko laguntzetarako, ekoizpenaren eraldaketari edo kalitateari lotutako berrikuntzaren eremuan.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/09/2404232a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404232e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Berrikuntzarekin eta kalitatearekin lotutako nekazaritza-nitxo berriak abian jartzea bultzatzea, euskal nekazaritza-sektorea eraldatzeko eta gartzetzeko prozesuak erraztuko dituztenak, lupulu, zereal okingarri, ahuntz-esne, boilur, oleaginoso, fruta-arbolak, olibadiak eta fruitu lehorrak (intxaurreondoa eta hurreondoa,...) ekoizten dituzten azpisektoreetako ustategiei lagunduz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Laguntza-ildo hori laugarren ekitaldian aplikatu ondoren, neurri horrekin jarraitu nahi da etorkizuneko aurrekontu-ekitaldietan, sektorean sortu den interesa dela eta. 2024ko ekitaldian 25 espediente izapidetu dira Nekazaritza eta Abeltzaintza arloan, eta 325.300,00 €bideratu dira. (3 sozietate, 15 gizon eta 7 emakume)

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	50	29

1.-Diru-laguntza programaren izenburua

Ekoizpen ekologikorako laguntza

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 16koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira ziurtatutako ekoizpen ekologikorako trantsiziorako laguntzetarako 2024ko deialdiaren oinarriak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/08/2403987a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2403987e.shtml>

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hirugarren ekitaldi honetako deialdiaren bidez, gure ohiko ekoizpenaren zati bat ekoizpen ekologikorantz igarotzen lagunduko duten jarduerak garatzen lagundu nahi izan da, produkzio-ereduei aurre egin gabe, baizik eta bateragarri egin daitezen.

Lehenengo ekitaldi honetako deialdiaren bidez, gure ekoizpen konbentzionalaren zati bat ekoizpen ekologikorako trantsizioan lagunduko duten jarduerak garatzen lagundu nahi izan da, ekoizpen-ereduei aurre egin gabe, bateragarri egin baizik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Agindu horren bidez, laugarren urtez egin da laguntza-lerro honen deialdia, 2024rako, ekoizpen ekologikorako. Nekazaritza eta abeltzaintza arloan, 19 espediente izapidetu dira ekitaldian, eta 97.157,09 € erabili dira horretarako

6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onuradunak	10	19

1.- Dirulaguntza programaren izenburua

Ekoizleen erakundeak edo taldeak sustatzeko lankidetzak

2.- Arau erregulatzailea

Agindua, 2024ko apirilaren 10ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita 2024ko ekitaldirako NPEPEn (2023-2027) aurreikusitako laguntzen deialdia nekazaritza- eta basogintza-alorreko ekoizleen elkarreentzako.

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzea (EHAA hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2402009e.pdf>

Ebazpena, 2024ko uztailaren 18koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, nekazaritza eta basogintzako ekoizleen elkarrekin Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko apirilaren 10eko Aginduaren bidez deitutako laguntzak ukatu eta emateko dena (EHAA, 182 zk. 2021ko irailaren 18koa):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404309e.pdf>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Programa honen xedea da nekazarien eta baso-ekoizleen elkarrekin edo antolakundeak eta horien batasun edo federazioak sortzea, programa indarrean dagoen bitartean aitortuak izan daitezkeen, bai eta 10/2018 Dekretuaren arabera aitortuta dauden ekoizle-taldeentzako laguntzak ere, jardura edo prozesu berriak egiteko balio katean nekazarien posizioa hobetuko dutenak.

Bi laguntza-ildo ezarri dira:

a) Nekazarien elkarrekin edo antolakundeak sortzeko, eta horien batasun edo federazioak, indarrean dagoen bitartean aintzatesten badira programa horren barruan.

b) Elkarrekin lankidetzak-jardura edo -proiektu berriak egiteko 10/2018 Dekretuaren arabera aitortuta egotea.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan ahalko dira nekazaritza- eta basogintza-sektoreko ekoizleen elkarrekin edo erakundeak, eta horien batasun edo federazioak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazarien eta basogintzako ekoizleen elkarrekin eta horien batasun edo federazioei buruzko urtarilaren 30eko 10/2018 Dekretuaren arabera aitortuta badaude, eta haien egokitzapen-aginduetan zenbait baldintza betetzen badituzte (Aginduaren 3.2 artikulua).



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdia egin duen Agindua babesean, aurkeztutako 3 eskabidetako proiektu baten aldeko ebazpena eman zen.

1.228.070,20 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, 28.500,00 euro konprometitu ziren.

- 6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskaera kopurua	19	3
Onartutako proiektu kopurua	19	1

1.- Dirulaguntza programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzak (EREIN programa)

2.- Araua erregulatzailea

Agindua, 2024ko martxoaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, 2024ko apirilaren 15eko Aginduak aldatua.

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzea (EHAA hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia (EHAA, 64 zk. 2024ko apirilaren 2koa): <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401564e.pdf>

Ebazpena, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, 2024ko irailaren 13koa, 2024ko abenduaren 8ko Ebazpenaren bidez aldatua (EHAA, 32. zk., 2025eko otsailaren 17koa)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500751e.pdf>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Laguntza horiek landa-ingurune bizi-kalitatea hobetzen, enplegua sortzen edo landa-eremuetan turismoa bultzatzen lagunduko duten azpiegiturak eta ekipamenduak hornitzeko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurkeztutako 236 eskabidetatik 153 proiekturen aldeko ebazpena eman da (205 ebaluatu dira, 31 atzera egite zenbatu ondoren).

Deialdi horren babesean, 11.657.920,00 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin (1.039.000,00 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, eta Landa Garapenerako Europako Funtsak kofinantzatuko ditu (4.156.000,00 euro, gehi 6.462.920,00 euro, Espainiako NP Bren 2023-2027 Plan Estrategikoan Batzordeak onartutako finantzaketa osagarri nazionalaren kontura), 11.655.968,94 euroko konpromisoa hartu da guztira.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskaera kopurua	227	236
Onartutako proiektu kopurua	140	153

1.- Dirulaguntza programaren izenburua

LEADER programa

2.- Arau erregulatzailea

“MENDINET – Landa Garapenerako Elkartea” Tokiko Ekintza Taldeak 2024ko ekainaren 7an bere web orrian argitaratutako oinarriak

3.- Deialdia, oinarri erregulatzaileak eta dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzea (EHAA hiperesteka)

Agindua, 2024ko apirilaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, deialdi honi erantzuteko funtsen zenbatekoa argitara ematen duena

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/04/2401852e.pdf>

Oinarri erregulatzaileak

https://www.euskadi.eus/contenidos/agrupacion_servicios/leader_2024/eu_def/adjuntos/2024_LEADER_DEIALDIA.pdf

Elikadura eta Landa Garapeneko sailburuordearen 2024ko abenduaren 23ko Ebazpena Resolución de 23 de diciembre de 2024, del Viceconsejero de Alimentación y Desarrollo Rural

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/01/2500473e.pdf>

4.- Subvencional Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Deialdi horren xede izan dira honako laguntza-neurri hauek:

- Ekintzailtza eta barne-ekintzailtza
- Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan egindako inbertsioak.
- Besteren konturako kontratazioa
- Espazioak egokitzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontu-zuzkidura 5.795.435,00 eurokoa izan da (548.380,00 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, eta FEADERek kofinantzatuko ditu. Zenbateko hori 2.193.500,00 eurokoa da, eta 3.053.555,00 eurokoa Batzordeak Espainiako NP Bren 2023-2027 Plan Estrategikoan onartutako finantzaketa osagarri nazionalaren kontura.

247 eskabide aurkeztu dira guztira. Horietako 44k atzera egin ondoren, 129 proiekturen aldeko ebazpena eman da, eta konprometitutako laguntza-bolumena 5.788.240,25 eurokoa izan da, honela banatuta:



- Ekintzailletza eta barne-ekintzailletza
Lagundutako proiektuak: 60
Laguntzaren zenbatekoa: 664.246,40 euro
- Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan egindako inbertsioak.
Lagundutako proiektuak: 50
Laguntzaren zenbatekoa: 4.173.895,55 euro
- Besteren konturako kontratazioa
Lagundutako proiektuak: 6
Laguntzaren zenbatekoa: 85.512.50 euro
- Espazioa egokitzea
Lagundutako proiektuak: 13
Laguntzaren zenbatekoa: 864.585,80 euro

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazleak</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkezturako eskaera kopurua	250	247
Emakumeek aurkeztatutako eskaera kopurua	50	44
Onartutako proiektu kopurua	140	129
Emakumeek aurkeztutako onartutako proiektu kopurua	8	20
Konprometitutako lanpostu kopurua	24	
Emakumeen lanpostuak sortutako lanpostu kopurutik	8	
Gazteen lanpostuak sortutako lanpostu kopurutik	8	

1.- Dirulaguntza programaren izenburua

EAEko landa- eta itsasertz-ingurunea dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak egiteko laguntzak

2.- Arau erregulatzailea

AGINDUA, 2024ko martxoaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez minimis araubideari atxikitako laguntzen deialdia egiten baita 2024. urterako, EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak egiteko.

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta dirulaguntza emateko ebazpena (EHAA hiperesteka)

Arau erregulatzailea eta deialdia: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401531e.pdf>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Nekazaritza-jarduerarekin zerikusirik ez duten eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta itsasertz-ingurunearen inpaktu dinamizatzailea dakarten gizarte-ekitaldiak sustatzeko laguntza-programa bat da. Proiektuak baloratzeko irizpide objektiboek, ekitaldiak gauzatzen diren eremuaren kalteberatasun-/litoraltasun-mailaz eta erakunde sustatzailearen esperientziaz gain, jardueraren inpaktuari buruzko hainbat irizpide biltzen dituzte. Arreta berezia jartzen zaio xede duen publikoari, tokiko eragileen inplikazioari, eragin-eremuari, genero-ikuspegiari eta hedapen-ekintzei. Laguntza horiek emateko prozedura ondoz ondoko konkurrentziarena da; hala, espedienteak eskabideak aurkezteko ordenaren arabera aztertu eta izapidetzen dira, eta behar bezala formulatuta eta osatuta geratzen diren neurrian eta hurrenkeran ebazten dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdia egin duen aginduaren babesean, aurkeztutako 40 eskabidetatik 25 proiekturen aldeko ebazpena eman da.

200.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, 200.000 euroko konpromisoa hartu zen.

6.- Dirulaguntzaren Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskaera kopurua	50	40
Onartutako proiektu kopurua	45	25

1.- Dirulaguntza Programaren titulua

Fruta- eta barazki-ekoizleen erakundeentzako laguntzak 2024

2.- Arau erregulatzaileria

857/2022 Errege Dekretua, urriaren 11koa, fruta eta barazkien sektoreko ekoizleen erakundeentzako horien elkarteen funts eta programa operatiboak arautzen dituen, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esku-hartze sektorialaren esparruan.

3.- Arau arautzaileria, deialdia eta dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzea (EHAA hiperesteka)

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-16586>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Antolakunde ekoizleak merkatuen antolakunde komunaren oinarria dira, eta beharrezkotzat jotzen da fruta- eta barazki-sektorean asoziazionismoa bultzatzea, egungo merkatuaren eskariei aurre egiteko; izan ere, merkatu hori izugarri lehiakorra da, eta gero eta zorrotzagoa kalitatean. Ekoizleek arrakasta izango dute soilik elkartuz, eskaintza kontzentratuz, ekoizpena eta maiztasuna kontrolatuz, merkaturatze-kostuak murriztuz eta merkatuaren beharretara egokituz. Bestalde, ekoizpen-teknikek ingurumena errespetatu behar dutela azpimarratu da, bai hazkuntza-sistemetan, bai erabilitako materialen kudeaketan. Fruta eta barazkien sektoreko esku-hartzeak fruta eta barazkien erakundeak (FBEE) sustatzen ditu, FBEEetan egiten diren programa operatiboak gauzatzeko funts operatiboak batera finantzatzuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Batera finantzatzutako laguntzak dira. Bi FBEE baino ez daude aitortuta EAEn. Biek dute onartutako programa operatibo bat, laguntzak jasotzeko eskubidea ematen diena. Guztira 240.000,00 €jaso dituzte Europako laguntzatik, gehi 188.293,31 €laguntza nazionaletik. Laguntza hori gabe, ekoizleen elkarrekin ez ziren sortuko, nekazaritza-politika bateratuaren lehentasunezko helburua. Horri eusteak lehen sektorea eta biztanleria finkoa indartzen ditu.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Fruta eta Barazkien Ekoizleen Elkarteari atxikitako enpresak	2	2
Eragindako gastua (milioiak)	2	0,73

1.- Dirulaguntzen programaren izenburua

Arrantza eta akuikultura sustengarria sustatzeko programa

2.- Arau erregulatzailea

2024ko urriaren 8ko AGINDUA, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza eta akuikultura sektorerako 2024ko dirulaguntza deialdiaren oinarriak

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta emateko ebazpena argitaratzea (EHAAko hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/contenidos/orden/bopv202404705/es_def/

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza sektorea diruz laguntzea, 2021eko uztailaren 7ko 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren, oinarrian, Itsas, Arrantza eta Akuikulturako Europako Funtsa (FEMPA) ezartzen duena, eta 2017/1004 (EB) Erregelamendua aldatzen duena.

Erlaitze arautzaile honek, besteak beste, honako arloetan inbertsioak laguntzeko aukera ematen du:

I) Arrantza jasangarria, honako laguntza lerroekin: Arrantza baliabideen kudeaketa jasangarria, hondakin bilketa arrantzaleen parte-hartzearekin itsasoan eta hondartzetan, arrantzaren eraginaren murrizketa, energia-eraginkortasuna eta klima aldaketaren arintzea ahalmenik handitu gabe, energia-eraginkortasuna eta klima aldaketaren arintzea ahalmen handituz, motorrak ordezkatzeko edo modernizatzea, lan eta segurtasun baldintzen hobekuntza itsasontzian ahalmenik handitu gabe, lan eta segurtasun baldintzen hobekuntza ahalmen handituz, gazte arrantzaleei hasierako laguntza, balio erantsia, ekonomia zirkularra eta elikagai segurtasuna, berrikuntza, prestakuntza, kontrola, ikuskapena eta betetzeak, arrantza portuak, deskarga guneak, lonjak eta ainguralekuak.

II) Ekoizpen, merkaturatze eta eraldaketa planak eta neurriak, honako laguntza lerroekin: Sektorearen antolaketa hobetzea, arrantza eta akuikultura produktuen sustapen kanpainetan oinarritutako merkaturatze hobekuntza, merkaturatze eta eraldaketan inbertsioak, arrantza eta akuikultura produktuen kalitate eta balio erantsia, ontziak eta aurkezpenak kontuan hartuta merkaturatzea sustatzea.

III) Akuikulturako berrikuntza, Akuikultura produktiboetan inbertsioak eta enpresen sorrera, Akuikulturako klimaren neutralitatearako inbertsioak, Akuikulturak ingurumen egoera onari eta ingurumen zerbitzuen emateari egindako ekarpena, animalien osasun eta ongizaterako neurriak, Giza kapitalaren eta sare-lanaren sustapena, Akuikultura ekoizpen eremuetako ahalmenaren handitzea, Ikerketa eta ezagutzaren hobekuntzaren bultzatzea, Akuikultura ustiapenetarako aholkularitza zerbitzu bereziak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko



eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Onartutako proiektuen kopuru osoa 107 izan da eta onartutako laguntzen guztizko zenbatekoa 11.128.754,81 €-koa da, eta laguntza lerro bakoitzaren arabera banaketa honakoa da:

Neurria	Proiektu kop.	Dirulaguntza
1.1.02 Arrantzaren eraginaren murrizketa	2	27.399,98 €
1.1.03 Energia-eraginkortasuna eta klima-aldaketaren arintzea, ahalmena handitu gabe	11	234.863,68 €
1.1.05 Itsasontzian lan eta segurtasun baldintzen hobekuntza	49	1.269.852,01 €
1.1.07 Gazte arrantzaileentzako hasierako laguntza	2	84.600,00 €
1.1.08 Balio erantsia, ekonomia zirkularra eta elikagai segurtasuna	10	857.668,02 €
1.1.10 Berrikuntza	10	1.063.252,86 €
1.1.12 Arrantza portuak, deskarga guneak, lonjak eta ainguralekuak	7	4.263.806,52 €
1.4.01 Kontrola, ikuskapena eta betetzea	2	4.023,90 €
1.6.02 Itsasoan eta hondartzetan arrantzaileen parte-hartzearekin hondakin bilketa	1	280.392,00 €
2.1.01 Akuikulturako berrikuntza	4	2.842.314,14 €
2.2.02 Arrantza eta akuikultura produktuen sustapen kanpainetan oinarritutako merkaturatze hobekuntza	2	57.175,34 €
2.2.03 Arrantza eta akuikultura produktuen kalitatearen eta balio erantsiaren, ontzien eta aurkezpenen esparruan merkaturatzea sustatzea	6	124.577,40 €
2.2.04 Merkaturatzean eta eraldaketan inbertsioak	1	18.828,96 €
Guztira	107	11.128.754,81 €

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
1.Helburua: Arrantza flota egokitzea		
1.Ekintza: Egiturazko politika		
Adierazlea 2: Itsasoan eta lurrian segurtasun eta osasunaren hobekuntzarako ekintzak laguntzea (ekintzen kopurua)	20	49
Adierazlea 1: Jasangarritasunerako flota eraldaketarako berrikuntza batzordeak laguntzea (ekintzen kopurua)	1	1
Adierazlea 2: I+G+B garatzea, arrantza praktika jasangarriekin flota bizigarria eta lehiakorra lortzeko		
Adierazlea 2.1: Energia-eraginkortasuna optimizatzea (ekintzen kopurua)	5	11
Adierazlea 2.2:Hautakortasuna eta murriztu ingurumeneko eragina hobetzea (ekintzen kopurua).	5	2



Adierazlea 2.3: Jardueraren eraginkortasuna (eraginkortasuna, segurtasuna, kalitatea) hobetzea (ekintzen kopurua).	20	10
Adierazlea 3: Itsasoan segurtasun eta osasunaren hobekuntzarako ekintzak laguntzea (ekintzen kopurua).	20	49
2. Helburua: Lehiakortasunaren handitzea		
3. Ekintza: Arrantza sektorean kanpainak diseinatu eta gauzatu, eta marketinaren kudeaketa bateratua egin.		
Adierazlea 1: Eusko arrantza produktuen ziurtagiria eta balioa bultzatzea (ekintzen kopurua).	3	1
Adierazlea 2: Portuetan ziurtagiri bateratuaren kudeaketarako proiektuak sustatzea (proiektuen kopurua).	1	0
Adierazlea 3: Markaren garapena laguntzea (proiektuen kopurua).	1	0
Adierazlea 4: Eusko arrantza produktuen ziurtagiriak eta ekologiako ziurtagiriak laguntzea (ziurtagiri kopurua).	1	1
3. Helburua: Akuikultura		
Adierazlea 1: Akuikultura produktiboetan inbertsioak	1	0
Adierazlea 2: Ezagutza teknikoa eta teknologia sortzea bultzatzea	1	2
Adierazlea 3: Animaliak zaintzeko osasun eta ongizate kontrolerako ezagutza eta neurriak garatzea	1	0
Adierazlea 4: EAEko akuikulturarako espezie berriei, ekoizpen sistemei eta ekipamenduei, eta akuikultura produktuen elikadura hobekuntzari buruzko ezagutza garatzea sustatzea	1	2

1.- Dirulaguntzen programaren izenburua

Arrantza eta akuikultura ekoizleen elkarteentzako ekoizpen eta merkaturatze planen programa

2.- Arau erregulatzailea

2024ko maiatzaren 28ko AGINDUA, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Kontseilariaren agindua, non Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza eta akuikultura ekoizleen elkarteei (OPE) zuzendutako laguntzak deitzen diren, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 11ko 1379/2013 Erregelamenduaren (EB) araudiaren esparruan, arrantza eta akuikultura produktuen sektoreko merkatuen antolaketa bateratua ezartzen duena, eta Kontseiluaren 2006ko 1184/2006 eta 2009ko 1224/2009 Erregelamenduak aldatzen dituen, baita Kontseiluaren 2000ko 104/2000 Erregelamendua indargabetzen duena, eta horiekin bat datozen xedapenak (OCM Erregelamendua).

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta emateko ebazpena argitaratzea (EHAAko hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2024/06/2403049a.pdf>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza sektorea laguntzea ekonomikoki, 2021eko uztailaren 7ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1139 (EB) Erregelamenduaren arabera, Itsasoko, Arrantzako eta Akuikulturako Fondo Europarra (FEMPA) ezartzen duena, eta 2017ko 1004/2017 (EB) Erregelamendua aldatzen duena.

Araudi honek besteak beste, honako esparruetan inbertsioak laguntzeko aukera ematen du: Ekoizpen, merkaturatze eta eraldaketa planak eta neurriak, honako laguntza lerroekin: Ekoizpen eta merkaturatze planak.

